



NOLA DAGOEN EGINDA INDUSTRIAGINTZAKO ARGAZKIA



FLASH - A - Lurrean jarrita dago, argia behetik gora dago apaletado perfilen muturrak bakarrik argitzeko, eta gizonak atzera proiektatzen duen itzala (soldaduraren argiagatik) kentzeko. Potentzi erdira dago, apaletatik gertu dagoelako eta ez nuen nahi perfilak gehiegi erretzerik

FLASH - B - Lurretik 60 cm tara dago, behekaldean dagoen bankada argitu nahi nuelako (soldaduraren argia gaitik kontraargira geratzen zelako). Potentzia guztia ibili det planoaren argi nagusia izatea nahi nuelako.

FLASH - C - Gizonaren atzean eta 2,5 metrotara dago, goitik behera bizkarra pixkat perfilatzea nahi nuelako, aldi berean baita ere perfilak pixka bat argitzeko. Potentzi erdia erabili det perfilatzea bakarrik nahi nuelako eta ez argazki dena argitu.



Argazki sekzioa egiteko bi tipotako soldadura ibili ziren

A-argazkia- Bobinako elektrodoarekin dago egina. Soldadura honek txispa asko ateratzen du baina eskua soldaduraren oso gertu ibili behar denez, ez da eskua ikusten arkoaren argiak estaltzen duelako.

B-argazkia- 40 cm ko elektrodoa, eskoria bezelako osagarri batekin bilduta dago, soldadura honek txispa gutxiago ateratzen du baina elektrodoa berria dagoenean eskua arkoaren argitik urrun dago eta oso ondo ikusten da

C-argazkia- A argazkia hartu det oinarri bezela, nere ustez indar gehiago duelako, baina oraindik eta indar gehiago ematearren, eskua bere elektrodoarekin jarri nahi det, hortarako B-argazkian eskua eta elektrodoa selekzionatu eta A-argazkira pasatu ditut. Argazkia landu ondoren, zonaka, koloreekin konbinatuz eta abar horrela geratu da.

D-argazkia- Nere ustez C-argazkian ezker aldeak protagonismo gehiegi dauka, alde batetik gruako gantxoaren koloreak eta perfilek, argi gehiegi dutelako, bista beregana joaten da. Akats hori tapatzearren eta protagonismo guztia gizonari ematearren, pentsatu det gantxoaren kolorea pixka bat naturalago jartzea, gizona zonaka gehiago landu eta perfilen argitasuna pixka bat leunago izateko argazki guztiari biñeteatu bat egin diot D-argazkian ikusten den bezela.